

Ze barri?

2001.ko
URTARRILA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

46 zkia.

Urlatik Landetara



郵便

平成11年

日本人ポリビア移住100周年記念

Erreportaia:
2001 urterako aurrekontuak


80

NIPPON

JAPONIA
ESKORIATZAN

JAPONESA A BOLIVIA

KURTZEBAARRI eskola garai berrietan ere... garaiiz



DERRIGORREZKO BIGARRREN HEZKUNTZA

(12-16)

KURTZEBAARRI B.H.I.



baikara

Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

2001-2002 ikasturteko

izena emateko epea:

Otsailaren 5etik 16ra

(8:30-12:30)(14:30-18:00)

- * Garraioa dohainik (Auzoetatik eta herritik ikastetxeraino).
- * Jantoki zerbitzua.
- * Ekintza osagarriak aukeran: kirola, marrazketa, dantzak, musika, ...

Santa Kurtz, 19 - Tfnoa.-Faxa: 943 79 57 40 - Email: 012945aa@hezkuntza.net



KURTZEBAARRI
ESKOLA

San Pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34
E-maila: axtroki@topagunea.com

ARGITARATZAILEA:

AXTROKI
Kultur Elkartea

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano
Iñigo Biain

KOLABORATZAILEAK:

Aitor Uribetxeberria
Aitor Urrutia
Asier Errasti
Juanma Pagalday
Iñaki Agiriano
J.J. Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola
Lourdes Martinez
Eduarne Unzueta
Iranzu Gabilondo

INPRIMATEGIA:

Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:

2.000 ale

LEGE GORDAILUA:

SS - 200/99

ISSN:

1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten
aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Kreditu txartelaren zenbakia

“Nor zaren galdetzen dizutenean, txartel baten zenbakia eskatzen dizute: Nortasun Agiriari Nazionalarena (NAN), pasaportearena edota, egun, batez ere, kreditu txartelarena”. Jose Saramago idazle portugaldarrak joan den astean Euskal Herrian esandako hitzak dira horiek. A caverna bere azken liburuaren gaztelaniazko itzulpena aurkezten izan berri da Bilbon Literaturako Nobel Sariiduna eta beste behin ere, bere pentsakera kritikoaren aztarna utzi digu. 78 urte beteta, bere betiko ideia ezkertiarrei uko egiteko batere asmorik ez du agertzen Saramagok, dioen bezala, bere burua zenbat eta zaharrago ikusi, are eta aske eta erradikalago sentitzen baita. Horren erakusle, Literaturako Nobel sariak eman dion ohiartzuna munduaren egoera kaskarra, giza harremanen galera edota injustizia soziala salatzeke erabiltzen ari dela idazle portugaldarra azken urteetan.

Goazen baina Saramagoren hasierako hitzak aztertzeraz. Portugaldarra egungo gizartean gizakia bere nortasuna galtzeko arrisku larrian dagoela gogoratzen ari zaigu guztioi eta munduaren egoera ikusita, arrazoirik ez zaiola falta aitortzea besterik ez dugula deritzot. Tamalez, izenaren tokia kreditu txartelaren zenbakiak hartu du egungo gizartean eta ondorioz, gizateriaren zati handi bat alde batera gelditu da, ahazterik ez baitugu munduko biztanleriaren gehiengoak kreditu txartelik izateko aukerarik ere ez duela. Gauzak horrela, El Salvadorren lurrikara dagoenean ere, kreditu txartelik ez duten horiek dira benetako kaltetuak, lurrikarek pobreei bereziki eragiteko sentzorerik ez dutela argi dagoen arren, ez baita zalantzarik hala gertatzen dela. Errua noski, ez da lurrikararena, horrelako egoerak

ahalbideratzen ditugun gizakiena baizik. Jada XXI. mendean sartu garen honetan, lan, etxebizitza edota bizitza duhin bat izaterik ez duten milioika eta milioika pertsona daude oraindik munduan eta horiek, ahal duten moduan bizirautea beste aukerarik ez dute. Hala, El Salvadorreko kasuan ikusi dugun moduan, inork probetxurik atera ezin dion mendi magal batean egin behar izaten dituzte beraien ‘etxebizitzak’ eta noski, lehen lurrikara agertzean, ezer gabe gelditzen dira, lehenago zerbait bazutela esan badaiteke behintzat. Hori dela eta, nahi ditugun laguntza guztiak bideratu ditzakegu orain El Salvadorrera edota gure kontzientzia zuritzeko balioko duten ehunka telemaratoi solidario antolatuta ditzakegu baina arazoaren erroetara jotzen ez badugu, ez du ezertarako balioko.

Saramagoren hitzetara itzuliz, beste txartel baten zenbakietara ere begiratu nahiko nuke amaitu aurretik. NAN edota pasaportearen zenbakiak ari naiz. Izan ere, argi dago gizakiak zenbaki horietara mugatzeko joera geroz eta nabariagoa dela gure artean. Aipatutakoaren adierazgarri, horrelako agiririk erakusterik ez dutenak gizakiak direla ere ahazten zaigu eta “ilegaltzat” jotzen ditugu gure ditxosozko mundu aurreratu honetan. Gure artera bizitza duhin baten baten bila etortzen diren horiek bazterketa eta zapalketara bidaltzen ditugu, zergaitik eta beraien “legaltasuna” bermatzen duen NAN edo pasaporte zenbakarik ez dutelako. Gizakiak zenbaki bihurtu ditugu. Hori bai, inoiz ezagutu gabeko oparotasunean bizi gara gure mundu aurreratuan. Bejondeigula!


Asier Errasti

OLAZAR JUBILATUEN ELKARTEAK AURPEGI BERRIAK

Urtarrilaren 11an Olazar jubilatuen elkarteak bere hauteskunde partikularren azken txanpa egin zuen. Izan ere, Olazarrek bi urtean behin berrituz egiten du bere Zuzendaritza Batzordeko kideen erdia. Batzordea 8 kidek osatzen dute, bakoitzak 4 urte egiten dituelarik postuan. Aukeraketa berriak 2 urtez behin egiten direnez, Zuzendaritza Batzordea inoiz ez da bere osotasunean berritzen, beti egon dadin norbait gutxienez 2 urtetako esperientziarekin.

KUOTAREN EGUNERATZEA

OLAZARko lagunak alde batera




Julio Oñate, Olazarreko lehendakaria

utzi gabe, gogoratu datorren aste osoan izango dela urteroko kuota ordaintzeko aukera. Beraz, Otsailaren 5, 6, 7, 8 eta 9 egunetan, arratsaldeko 5etatik aurrera eta, beti bezala jubilatuen bulegoan, 500 pesetako kuota hori ordaintzera pasa zaitezketek, baina ez ahaztu jubilatuen txartela eramatea zeharo beharrezkoa dela.

DENBORALDI BIKAINA ARETO FUTBOLEKO NAGUSIENENTZAT

Eskoriatzako Ohorezko, mailako areto futbol taldea denboraldi bikaina burutzen ari da aurtengoan. Azkeneko emaitzek Euskal Ligara igotzeko zorian jartzen dute talde Eskoriatzarra, eta egin beharko duten ahalegina haundia izan beharko bada ere, gogoia behintzat ari dira jartzen. Azkeneko bi partiduetan emaitza oso onak lortu ez badituzte ere, oraindik badute aukerarik gorantzako urrats bat emateko, eta horrela Euskal Ligan sartzeko.

Gogoratu Eskoriatzako futbol taldeek, gipuzkoarrak izanda ere, Arabako ligan jokatzeko dutela, desplazamenduen arazoa nolabait ekiditeko. Dena dela, gorago aipatu salto hori ematen badute, orduan bai mugitu beharko dela taldea alde batetik bestera. Baina jakina da era horretako sakrifizioak gustora egiten direla sari ona daukagunean.



Etxebizitzak zozketan

Eskoriatzar gehienok gogoratuko duzuen bezala, Udaletxea eta Ganuzako jauregiaren artean hainbat etxebizitza eraikiko dira, etxebizitzaren nagusiek osatutako Kooperatiba bezala funtzionatuko duena. Etxebizitzok eraikiko diren lurzorua % 25 inguru Udalarena zen, eta beraz, 8 etxebizitza egokitzen zitzaizkion, baina etxebizitza hoiek besterik gabe Kooperatibari eman beharrean, Udalak hainbat baldintza jarri zituen herrian beharra

dutenean etxebizitzok normalki aukerarik izango ez luketen herritarrek erosi ahal izateko. Honela, Urtarrilaren 18an zozketa bat egin zen 8 etxebizitza hoiek erarik zilegizkoenean banatzeko.

Zozketa honetarako 113 lagunek eman zuten izena, hauetarik 108 eskakizun onartu ziren, eta hauexek izan ziren, hain zuzen, zozketan sartu zirenak. Jende askotxo 8 etxebizitza soilik lortzeko, baina horrek frogatzen du Eskoriatzan ere, beste toki gehienetan bezalaxe, etxebizitzaren inguruan arazo bat badagoela. Zorionak, beraz, etxebizitza hori erosteko aukera lortu zenutenontzat.

EUSKAL TXOKOIA ABIATU DA

Joan zen hilaren 26an Euskal Txokoak bere atea ireki zituen Intxaurtxueta auzoan, inaugurazioaren inguruan izandako hitzaldietan jendeak erantzun ezinobea eman zuelarik.

Eskoriatzak bazuen beharra Urtarrilaren 26an bere atea zabaltu zituen Euskal Txokoa bezalako toki bat izateko. Bertara mugitu dira alde batetik euskaltegiko zerbitzuak, orainarte Kultur Etxeko gela batean zeudenak, eta bestetik gu geu, *Axtroki* elkarte eta *Zer Barri?* aldizkaria.

13 milioi pasako aurrekontua izan duen lan honek bere fruitua ematen hasi da, eta jendearen erantzun ezinobea ikusita, itxaropenez betetzeko bezalako etorkizuna opa diogu.

Gorago esandako bezala, Urtarrilaren 26an zabaltu ziren Euskal Txoko berriko atea, eta bertan bildu ziren lokal berri honetako sujetu aktiboak direnak eta izango



Jendetza ugari bildu zen Euskal Txokoaren inaugurazioan

direnak (Udaletxea, Axtroki, Zer Barri?, Euskaltegia, ...). Eguraldia hotza eta petrala izan bazen ere, jendea bertaraino hurbildu zan, hurrengo egunetan ere egin bezala. Izan ere, Astelehenean, Urtarrilaren 29an Alberto elorza oñatiarra ekarri zuten hitzaldia ematera, Oñatiko Zelai Zabal jatetxeko sukaldaria. Albertok Euskla sukaldaritza eta sukaldariak komunikabideetan gaia jorratu zuen, jendearen harrera eta partehartze bikainarekin. Aipatu behar, gainera, lehen ekitaldi honek izan zuen

jarraipen informatiboa, Zer Barri? eta Telesko ezezik, GoiTB eta ETB ere bertan izan baitziren. Asteartean Juan Martin elempuru idazle bergarra izan zen gonbidatua, Badiarduguren inguruko hitzaldiarekin. Atzo bertan beste hitzaldi bat ospatu zen Euskal Txokoan, Mikel Irizar Goienako egitasmoaren inguruko berri jakin ahal izan genuelarik. Hasiera bikaina beraz, Euskal Txoko jaio berriarentzat.

Olio birziklatua

Urtarrilaren 19tik ,Eskoriatzak zerbitzu berri bat izango du, erreziklaiaren bidean hurrats haundi bat suposatuko duena. Izan ere, eta Eskoriatzan lehenago era honetako ekimenak egin badira ere, oraingo honetan zerbitzu bezala datorkigu, Udalak kontratatutako zerbitzu bezala, halegia.

Urte osoan zehar 9 Ostiraletan ECOGRASS enpresaren furgoneta bat izango da Eskoriatzako azokaren inguruetan, eta herritar danok zuen etxeetako olio zikinak beratara eramane ahal izango dituzue. Olio birziklatzea, eta beraz, gure

erreketa kutsadura ekiditzea gutxi balitz, beste erakargarri bat ere badauka zerbitzu honek, emandako olio pote bakoitzeko olio zaharra birziklatuz egindak xaboi zati pastila bat emango baitzue egun horretan furgonetaren arduradun bezala dgoenak. Esan bezala, olio zikin hori birziklatu egiten da, eta bertatik hainbat produktu berri ateratzea ahalbidetzen du (kosmetikoak, xaboiak, pentsuak, gasoilaren ordezko produktuak, ...). BAdakizue, beraz, guztion esku



dagoela hondakin hoiek birziklatu eta gure inguruak garbi mantentzea.

Hurrengo bilketak ondorengo datetan izango dira: Martxoak 2, Apirilak 6, Maiatzak 18, Ekainak 22, Uztailak 27 eta Irailak 28.


JAPONIAKO ZIGILUAK OPARI

Joan zen hilaren 24an, Asteazkena, Justo Segura apaiz eskoriatzarrak donazio bat egin zion Eskoriatzako herriari, eta konkretuago esateko Eskoriatzako Museo eskolari. Donazio edo emate hau Justo Segurak duela 40 urtetik hona bildutako sigilu bilduma bat da, baina ez edonolako zigiluak, gehienek jakingo duten bezala, Justo Segura 1963 urtetik Japon aldean ibili baita, eta handik baitatoz, hain zuzen ere, zigiluok.

Justo Segurak, ordea, ez zuen eskoriatzatik esku hutsik alde egin, herri osoaren eskerronaren froga bezala alkateak plaka oroigarri bat eman baitzion Eskoriatzako apaizari.

Zigiluek osatutako erakusketa hau, *Kulturak batzen gaitu* deitu dutena, ikusgai izango duzue astean zehar arratsaldeko 17.00etatik aurrera, eta

12.30etatik 14.00etara, eta 17.00etatik 20.00tara asteburuan.



LUIS EZEIZA SARITUA

Luis Ezeiza Eskola Publiokoko ingeles irakasleak sari berezi bat jaso du Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eskutik, 4-8 urteko ikasleekin aurrera eramaten ari den proiektugaitik. Aipatu behar, proiektu honetan bailarako beste sei Eskola Publikotako irakasleek ere parte hartzen dutela. Zorionak, beraz, Luis Ezeiza ikastetxeari.

Baina ez da hemen amaitzen Luis Ezeizaren inguruan dagoena. Izan ere, 2001-2002 ikasturteko matrikula epea Otsailaren 5ean zabaltzen baita, Otsailaren 16a arte. Matrikula egiteko ordutegia goizeko 9.15etatik arratsaldeko 18.00etara izango da.

Otsailaren 5ean, ordea, ez da matrikula egiteko epea bakarrik hasten, Luis Ezeizak aste kulturala

antolatu baitu egun horretatik Otsailaren 9a arte. Hona hemen aste horretan izango den egitaraua: Astelehenean birziklai tailerrak izango dira arratsaldeko 15.00etan. Asteartean mahai jokuez (Lehen Hezkuntzan) eta joku tradizionalak (Haur Hezkuntzan) gozatu ahal izango da 15.00etatik aurrera. Asteazkenean piano jolea izango dute Lehen Hezkuntzan (11.00), euskal pilota txapelketako finalak pilotalekuan (15.00) eta gurasoentzako hitzaldia Andoni Colasen eskutik 18.00etan ("Beharrezkoak al dira mugak eta arauak haurren heziketan?"). Ostegunean ipuin kontalariak izango dira Haur Hezkuntzako ikasleentzat (14.30) eta Lehen Hezkuntzan (15.30). Azkenik, Ostiralean pailasoak ikasle guztientzat (15.00).

HAUR ESKOLAREN UDAL ZERBITZUA (0-3 urte)

Eskoriatzako Udalak jakinarazi nahi du 2001-2002 ikasturterako aurre-matrikula egiteko epea otsailaren 5etik 16ra bitartekoa izango dela 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako UDALEKO HAUR ESKOLAn. Haur Eskolaren zerbitzu hau José Arana / Almen Ikastolak eskaintzen du.

Informazio gehiago jasotzeko, GANUZA ETXEAn dagoen zentrora jo behar da edo 943-714486 telefono-zenbakira deitu. Eskoriatza, 2001eko urtarrilaren 25a.

JUSTO SEGURA

Justo Segura apaiz eskoriatzarra 1963an Japonia aldera joan zen, bere bokazioak eta lan erlijiosoak bultzatuta. 38 urte beranduago eskoriatzara bueltatu da besapean bilduma bitxi bat dakarrela: Japonian emandako urteetan bildu dituen zigilu mordoak osatzen duen bilduma. Urtarrilaren 24an eman zion bilduma hau Eskoriatzako Museo Eskolari, eta beraz, eskoriatzar guztiei.

Zergaitik erabaki zenuen Japon aldera joatea?

Japonera konkretuki 1963an heldu nintzen, baina aurretik lau urtez izan nintzen estatu Batuetako Kalifornia aldean. Egia esan nire bokazioak eraman ninduen Japoniara, eta ez naiz batere damutzen, gainera.

Zein izan zen zure lehe impresioa hara heldu zinenean?

Hura oso ezberdina da. Hasteko, hizkuntza daukazu muga nagusi bezala. Kostatu zitzaidan jendearekin komunikatzen hastea, baina hala ere, hemen uste duzuen baina errexagoa da japoniera, Ingelesarekin lan haundiagoak izan nituen!

Nola hartu zintuzten han?

Oso ondo. Ez daukat inolako kexarik.

Goazen gaurko gaiari heltzera: nolatan hasi zinen filatelia kontu hauekin?

Hara heldu nintzenez hasieratik ohartu nintzen zein zigilu ederrak ateratzen zituzten. Zigilu hauek japoniarren kulturaren islada bat dira, eta iruditu zitzaidan interesgarria izan zitekeela hemengo jendearentat Japoniako kultura ezagutzeko zigilu hauen bidez.


Kultura aipatu duzunez, zein ezberdintasun nagusi aurkitzen dituzu Japonia eta gure euskal Herri honen artean?

Ezberdintasunak nabariak dira: janaria, historia, arraza, ... Baina Justo Segura hemen ikusten ez dituzuenak antzekotasunak dira, eta askok uste baino gehiago dira, gainera. Esate baterako, Japonia oso herri tradizionala izan da beti, baina oso denbora gutxian jasandako industrializazio eta modernizazio prozesuak bere kultura eta tradizio hori kolokan jarri du. Euskal Herrian ere antzeko zerbait gertatu da. Japoniarrek, gainera, oso begiko gaituzte euskaldunak, eurentzako kultura mantentzeko eredu bat baikara.

Hizkuntza bera ere nahiko antzerakoa da. Nik 5 hilabetetan japonieraz pentsatzen nuen, nahiz eta hizkuntza hobetzeko denbora gehiago behar den, noski. Baina ingelesarekin 4 urte behar izan nituen pentsatzen hasteko bakarrik.

Zu hara zeregin erlijiosoetara joan zara. Zein erlijio da han nagusi, eta nola bizi dute erlijiotasun hori?

Han erlijio nagusia sintoismoa da,



Justo Segura

nahiz eta budismoak ere baduen indarrak. Kristautasuna, esate baterako, oso minoritarioa da han, eta oso zaila da gainera jendeak erlijio berri bat onartzea, eta hare gehiago kristautasunaren kasua, gehienek erlijio atzerritarra kontsideratzen baitute.

Duela 6 urte Urrezko Danborra eman zizuten Donostian. Nola hartzen dira era honetako sariak?

Nire ustez urrezko danbor hura ez nuen nik merezi, baina erabakia hala izan zenez, ba onartu behar. Ez daukat oso oroitzapen ona hartaz. Japonetik heldu eta hurrengo egunean lurrikara izan zen han, eta ni bizi nintzen tokia oso zigortua gertatu zen. Ni han izan banintza, ziuraski gaur ez nintzen hemen egongo, nire oheak ere jasan baitzuen lurrikararen haserre. Esan daiteke Jaungoikoak atera ninduela handik.



2000ko Abenduaren 28an ospatu zen Osokio Bilkuran onartu ziren 2001 urterako aurrekontuak

2001 urterako aurrekontuak onartuta

Buruhauste haundiegirik gabe aurrera egin zuten joan zen urtearen azken egunetan 2001 urte honetarako aurrekontuak. Zalantza nagusiak Almen ikastolaren eta Axtrokiren inguruan sortu ziren.

Joan zen Abenduaren 28an, milurteko azkeneko Inuxente Egunean, hain zuzen, 2001 urterako aurrekontuak jorratu zituen Osoko Bilkura ospatu zen eskoriatzako Udalean. Iazko urteko aurrekonturkin berdinduz gero, aurtengo urterako 160 milioi gehiago egongo direla ohartuko gara, igoera hori hainbat lan aztertuta ulertzen delarik. Lan hauen artean aipatu beharrekoak uste ditugu Olazar eta Santa Ana auzoetako

eraberritze lanak (90 milioi guztira), Udaletxearen eraberritzea (75 milioi) eta Ibarraundi baserriarena (20 milioi), Museo Eskola bere baitan jasoko duena, halegia.

Abenduaren 28ko Osoko Bilkuran ez zen gai istilutsurik izan, nahiz eta ALMEN ikastolak jaso beharko lukeen dirulagintzaren inguruan izan zen barbarik. Izan ere, ezker Batuko zinegotzia den Javier

MIRENTXU


TABERNA

Kafe goxoa hartzeko

Tfnoa.: 943 71 41 67

TXALAPARTA

JATETXEA



Tfnoa.: 943 71 50 46



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo

Tfnoa.: 71 51 20

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa: 943 71 47 29

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Zugastik esan zuen ALMEN kontzertaturiko ikastetxea izaki, jasotzen duela dirurik beste alde batzuetatik, eta ondorioz, Udalak ez liokela diru gehiagorik eman beharko. Hezkuntza mailarako aurrikusita zeuden gastuak onartu baziren ere, orain eztabaidatzeko gelditzen den gaia da ia diru hori nola banatu, ALMENEk jasoko duen ala ez.

Axtroki elkarteak eginiko eskakizuna, bestalde, ez zen onartu Osoko Bilkura horretan. Axtrokik bere jarduna bideratuko duen langile bat kontratatzeke dirulaguntza eskatu zuen, baina hori Udalak jarri berri duen Euskera Teknikariak bete beharreko lana dela eta, ez ematea erabaki zen. Zer barri? aldizkariak ere ez zuen eskatutako guztia jaso, nahiz eta bere dirulaguntza bai jaso den.

Osoko bilkuran jorratu zen beste gai azpimarragarria GSM Medio Ambiente, S.A. garbiketa enpresaren aurkako zigor espedientea irekitzearena izan zen. Osoko Bilkurak aipatu enpresak kontratuan esandakoa betetzen ez duela eta (ez da garbiketaren maiztasuna betetzen, Eskoriatzako guneko batzuek batera jareak daude, Intxaurtxueta auzoa edota ALMENERaino doan pasioa, esate baterako, ...), eta hau akats larri bezala kontsidera daitekenez, espedientea irekitzea erabaki zuen. GSMri 15 eguneko epea eman zaio beharrezko ikusten dituen alegazioak aurkezteko, baina ezinbestekotzat ikusten da bere zerbitzuen hobetzea, Udalak kontratua hautsi bailezake bestela.



Ibarraundi baserriak, behin eraberrituta, Museo Eskola hartuko du

5 milioi gainditzen duten aurrekontuak

| | |
|---|------------|
| Bide publikoen mantenimendua | 5.000.000 |
| Kiroldegiko indar elektrikoa | 6.541.500 |
| Argiztatzeko publikoak | 8.583.750 |
| Ur partzuergoa | 28.000.000 |
| Jaiak | 8.470.000 |
| Ekintza kulturalak | 5.110.000 |
| Kaleen garbitasuna | 8.755.500 |
| Zabor zerbitzua | 12.429.713 |
| Parke eta lorategien mantenimendua | 7.276.488 |
| Kiroldegiko ekintzen jectioa | 9.000.000 |
| Euskaltegiari aportazioa | 8.132.452 |
| Teleskori aportazioa | 8.900.000 |
| Hezkuntzari dirulaguntza | 5.998.000 |
| Etxez etxeko laguntza | 8.000.000 |
| Kiroletarako dirulaguntza | 7.100.000 |
| Hauteskunde taldeei dirulaguntza | 7.773.674 |
| Lurzoruaren erostea | 30.000.000 |
| Elizateen bideen konponketa | 15.000.000 |
| Elizateetara ura sartzea | 7.000.000 |
| Olazar auzoaren urbanizazioa | 40.000.000 |
| Santa Ana auzoaren urbanizazioa | 50.000.000 |
| Tesa-Ezkurra-Alza urbanizazioa | 5.000.000 |
| Antontxuren urbanizazioa | 5.000.000 |
| Oztopo arkitektonikoak kentzea | 15.000.000 |
| Luis Ezeiza ikastetxea | 5.000.000 |
| Lokalen egokitzea | 15.000.000 |
| Kanposantua | 9.000.000 |
| Ibarraundi baserriaren eraberritzea | 20.000.000 |
| Udaletxearen eraberritzea | 75.000.000 |
| Udal baskula | 6.000.000 |
| Uraren azpiegitura kanona | 11.600.000 |
| Teleskori inbertsiorako aportazioa | 25.000.000 |
| Ondare erlijiosoaren eraberritzea | 6.500.000 |
| Eskoriatzako Industrialdea (Prestamoak) | 47.040.000 |

**GOLO
GAZTE
MODA**

Arana kalea, 13
Tfnoa.: 943 71 42 99

BIDAI AJENTZIETAN ESKAINTZEN EZ DEN CUBAREN BILA

Hasiera batetan buruan opor merke batzuen gogo bazuten ere pasa den Abuztuaren 4ean Bilbon hegazkinera igo eta Cubara bidea artuz bukatu zuten Leire Pagaldai, Maite Alvarez, Olga Simal eta Nerea Zabalak. Gertuko herria da guretzat cubarra, aipatzearekin soilik topiko mordoak dakarkiguna: salsa, ondar zurizko kostaldeak, Fidel, Iraultza, rona, blokeoa, turismo sexuala... Baina gure lau neskek topikoetatik urrundu eta Cuba eta bere jendea barru-barrutik ezagutu nahi izan zituzten, ohiko ibilbide turistikoekin jaramonik egin gabe, kale eta jende artean galduz.

Eta topikoak alde batera uzten hasteko, euria zen La Habanan Maite, Nerea, Olga eta Leirek Iberiako hegazkina utzi eta aeroportutik irten zirenean. Gainera, bidean aurkitu zuten cubatar bat adar joka hasi zitzaienten, toki hartan behin eguraldi txarra sartuz gero, egun askotan joaten ez zela esanez. Agian etzen tropikoko oporraldia hasteko modurik hoberena baina bestalde, gauzak nahiko ongi lotuta zituztela heldu ziren Habanara: Bidai txartelarekin batera artutako hamar gaueko egonaldia (Cubako hiri ezberdinetan banatu zitekeena) segurtatuta zuten, eta Nerea lehenago Cuban ibilia

zenez, beraien bixitaren zain zeuden zenbait familia cubatarren helbideak er bazituzten; nahikoa arrazoi ziren beldurrik gabe hirian barrena mugitzeko.

Malekoitik gertu, Habana Zaharretik bost minutura dagoen Capri hotelean artu zuten lehen ostua, "garestia eta kutre xamarra" esan digutenez, baina bost axola, laister konturatu bait ziren Cubari kaleko bizitzak ematen diola duen xarma, ibilbide turistikoetatik hurrunduta kalean galduz gero, planik eta zehaztutako egitaraurik gabe joanez gero, ehuneko ehunean gozaten dela bertakoekin lortzen den harremana.

Habanan bi egun egin ondoren, berriz ere hegazkin bat hartu eta martxan jarri ziren laurak, Santiago de Cubara dauden 800 kilometroak lehenagotik kontratatuta zuten

hegaldi batetan egiteko. Handik, beraien gogoan zuten ibilbidea egingo zuten, Habanaraino itzuli, trenez, autobusez... bertakoek erabiltzen dituzten garraiobideak erabiliz. Arrasateko lagun batzuek emandako enkargu bat betetzera joatean, beraien etxea eskaini zien familia bat ezagutu zuten, eta beraiekin batera hasi ziren cubako jendearen eguneroko bizitza ezagutzen. merkatu beltza, arrazionamendu kartilak, ogia erosi ahal izateko iladak... kalera irtetzean ez omen da inolako beldurrik pasatzen, jendea atsegina izateaz beste, polizia alde guztietan dagoelako ere bai. Hala ere, eguna bere hogeitalau ordutan bizi daiteke, ezer ez da behar jai bat antolatu ahal izateko. Hoteletan ez gomendagarri eta arriskutsu deitzen zieten lekuetan egon ziren gustoren, eta turistak ibili ere egiten ez diren



Nerea, Maite eta Olga Santiagoko kaleetan, bertako lagun batekin

lekuetan.

CIENFUEGOS ETA TRINIDAD, CUBA KOLONIALAREN ISPILU

Lau egun beranduago, "Locura Azul" izeneko tren artu eta Santiago atzean utzi zuten, Santa Clara jo, eta handik Cienfuegos eta Trinidadera hurbiltzeko. Bidaia luzea eta deserosoa egin zitzairen, sei orduz egon behar izan bait zuten itxura denez oraindik Cuban guztiz kontrolatzen ez duten treneko aire egokituari aurre eginez.

Denbora gelditu egin dela omen dirudi Cienfuegos eta handik gertu dagoen Trinidadan.

Kale adokinduetatik zehar, kolonial itxurako etxeek hurrunezi ez dagoen iragana gogoratzen dute. Ondo zainduta daude etxe eta kaleak, eta txoko oso politak aurki daitezke, batez ere 'cuban beti irekita dauden etxeetako atea gurutzatuz aurki daitezkeen barruko patio eta baratzeetan.

Guanabo aldera jo zuten gero, garraibidetzat "taxi beltzak" erabiliz. Bizitza ez da errexa Cuban "no e fasil" beraiek esaten duten bezela, eta bertako askok beraien



Trinidateko elisa eta bere etxeekin, lorategian

autoak erabiltzen dituzte turistak alde batetik bestera eramateko. Arazo bakarra errepede kontrolak dira, irlakoek "caballito" izenez deitzen dituztenak, baina konponbide erreza ematen diete gidariak arazoari: kontrolera eldu aurretik gelditu, kotxean doazanak errepede iskiñatik doan bide batetik bidali, kontrola pasatu ondoren berriro kotxean artu eta kitto! Leku deserosoa egin zitzairen haseran Guanabo, hondartzak zikin itxura zuen eta bertako poliziek zakar xamarrak direnaren fama omen

dute; hala ere, Guanabon ongietorria eman zien beste etxe bat ere izan zuten.

Varaderora egin zuten gero, La Habanara joan aurretik. Izugarri polita omen dira bere kostaldea eta ondartzak, leku aproposa benetan ezkonberrientzako, baina oso cubatar gutxi omen zegoen han, eta toki lasaiegia iruditu zitzairen gure lagunei.. Eta konturatu orduko, bueltan ziren berriz Habanan, eta egun gutxi barru berriz hegazkinean. Hitz gutxi dira hemen jarritakoak lau neska hauek hilabetez Caribeko irla hontan bizitakoak kontatzeko, mila anekdota gelditu bait dira bidean; ustekabean sartzen diren ekaitz tropikal batek harrapatu zitueneko hura bezela; Nereak hizkuntza kontuekin izan ziten gorabeherak ere badute bere grazia; eta ez dugu lortu La Habanan kale erdian tam-tamak jotzen aritu zireneko argazkirik lortu, baina tira, hoiek kontu serioegiak dira hau bezelako aldizkari informal batentzat.



Bidaiaren hasieran, Santiagotik Habanarako hegaldia hartu aurretik

Ba al dakizu olioa birziklatzeko zerbitzu berria dagoela. Erabiliko al duzu? Beste ezer birziklatzen al duzu?



ITSASO ERRASTI

Oso ondo iruditzen zait, baina nere etxean ez dago birziklatzeko ohitura haundirik, baina ni saiatuko naiz ia ohitura hauek hartzen ditugun.



FLORENCIA GONZÁLEZ

Bai nik dena erreziklatzen dut, baita olioa ere. Oso garrantzitsua iruditzen zait ingurua eta errekek garbi edukitzea, eta horretarako birziklatzea beharrezkoa da.

Honez gero jakingo duzuen bezala, iadanik martxan da Eskoriatzako Udalak jarritako olio zaharrak biltzeko zerbitzua. Urtean bederatzi Ostiraletan egingo da merkatu txikian, goizeko 10ak eta eguerdiko 14.00ak artean. Zuen olio erabiliak jasotzeko ECOGRASS enpresako furgoneta bat izango da bertan, eta berari zuen olioa ematearekin bat, beraien olio zaharrarekin egindako xaboi pastila bat emango dizute. Badakizu beraz, ohitura hartzea besterik ez da, eta ingurugiroari egingo diozun mesedea itzela, gaurko gure inkestan agertu den bezalaxe.

Hona hemen urteko zein egunetan pasako den ECOGRASSeko furgoneta hori Eskoriatzatik:

Martxoaren 2a

Apirilaren 6a

Maiatzaren 18a

Ekainaren 22a

Uztailaren 27a

Irailaren 28a

Azaroaren 29a

Abenduaren 14a

Udalak alde zuzenetik aurretik zuen kolaborazioa eskertu nahi du.



ANA MAZÓN

Olioa oraindik ez dut birziklatzen, baina gainontzeko hondakinak bai.

Dena dela uste dut oso garrantzitsua dela, batez ere ingurugiroari begiratzen badiogu.



IÑIGO GARCÍA

Jakinean nago zerbitzu hau jarri dutela, baina oraindik ez dugu erabiltzen, zerbitzu berria da, eta. Ez dakit etxean hasiko diren, baina oso ondo iruditzen zait ekolijaren aldeko zerbeit delako.

**ESKORIATZAKO
UDALEKO
INGURUGIRO
BATZORDEA**

Txuleta: hezurrarekin, edo barik?

Haragijale gehienoi gertatu zaigu behin baino gehiagotan hezurdun txuleta baten edo bestearen aurrean "toreatu" behar izatea, eta garbi baino garbiago daukat (hobeto, kasu honetan, zikin baino zikinago) egiteko gutxi izango dela hau baino zikinagorik eta aldrebesagorik.

Hasteko, letxuga apur bat edo pipar gorriren bat hartu nahi duzun bakoitzean, txuleta platerean utzi eta tenedora hartu ondoren hasi behar zara, gero, berriz ere, tresneria guztia mahaian utzi eta txuletari heltzeko. Ez da, ez, batere funtzionala.

Horretarako, eskuak zeharo koipeztuta daukazu txuleta esku artean erabiltzeaz, eta atzamarrak miazkatu behar batean zabilta, inguru guztia zeharo kakaztuta utzi nahi ez baduzu. Alboko basaganau honek esango du, akaso, gustua benetan hartzekotan, eskuekin jan beharra dagoela, eskuekin erabiltzean beste gozotasun bat ateratzen zaiola txuletari... Txorradak! Esku artean erabiliaz beste gauza batzuei aterako zaie, behar bada, gustu handiagoa, baina ez jatekoei; bestela, txuleta osagarri diren pipar eta letxuga ere eskuekin jaten dituzu, ala?

Uste duzue gizaki zibilizatuaren planta egiten duela kristauak txuletatza esku artean, olioia dariola bizarrari edo okotzari? Aupetzaka eta edatekoa ere aho ertzetatik behera jariatzen hastea baino ez litzaioke faltako!

Horregatik, ondo baino hobeto datorkigu Europako Osasun ez-dakit-zereko Batzordeak esandakoa, txuleta hezurdun ezin dela jan, ezin dela saldu halakorik. Eskerrak osasunaren prebentzioaren ardura daukatenean aldetik laguntza apur bat jasoko dugula ohitura basati eta primario honen aurka gaudenok, bestela nekez baztertuko genituzke halakoak. Berdin da, gainera, sagardotegietako hainbat "puristek" hangoak guztiaren gainetik hezurra behar duela badio, alferrik ibiliko da-eta: debekatuta badago, debekatuta dago, eta ez dauka bueltarik. Beldurrik gabe esan ahal izango dugu aurrerantzean: "niri hezurbakoa, plis"

Mende berri honen estraineko artikulurako agindu diguten gaia ezin egokiagoa mendea bera zer-nolakoa datorkigun antzemateko. Boteprontoan hartuta badirudi txantxetarako edo aldamenekoa eta biok elkar zirikatzekeo jarri digutela, baina huskeriatan geratu gabe aztertu bat emanez gero, badu bai mamia gaiak, ezagutzen dugun mundua ez da aurrerantzean berbera izango eta. Aldaketak piano-piano eman dira. Banan-banan hartuta barrea besterik ez dute eragiten. Bata bestearen atzean jartzen baditugu berriz, konturatu orduko beste errealitate baten izango gara. Ez dut gaiztoagoa izango denik esango, ez eta hobea izango denik ere, erabat bestelakoa izango dela eta ez dela izango nire gustukoa bai ordea.

Mende berriaren bukaeran Txinak bere harresia izango du, Partenoiak bere zutabeak izango ditu, Pisako dorreak zutik iraungo du, Vatikanon aitasantuak jarraituko du (deskuidatuz gero Woytila bera). Honetan munduak bere martxa jarraituko du. Gizarteak ere aldaketak ezagutuko ditu, hala nola soldaduska gabeko kintoak, ideologia bako partidu eta sindikatuak, euskaldunik gabeko Errealia, emakumez osatutako "Alardea", "linguonavarrorum" bariko Navarra ... eta gizarteak ez ditu aldaketatzat joko, eboluziotzat baizik.

Hala-baina gizartearen uniformetasunerako maldan beherak topea joko du. Arrazoi edo arrazoi barik, eta geuri erabakiak hartzeko aukera lapurtuz, geure uestezko osasunaren izenean ezarritako neurriei esker luzaroan biziko gara, bai, baina triste. Bizipoza galdu gabe, nola uler daitezke bestela alkoholik gabeko ardoa eta zerbeza, kafeina bako kafea, nikotinarik gabeko tabakoa, alkaloiderik ez duen hachisa, arrautzarik gabeko tortilla, kafeina bako kokakola, pikante bariko pikillo eta padron piperrak, gantzik gabeko odolosteak ... eta Duracell pilak ez ditudalako, bestela segi, eta segi, eta segi

Beraz eta ezagutu izan dugun mundua eta ongizatearen alde, gauza bakarra luzatu dezaket: txuleta hezur eta guzti!!!

jone eta jojo

ZE BARRIren atal hau, garaiei egokituz, interaktiboa egin nahi izan dugu. Dakizuen moduan, atal honetan Jone eta Jojo gai jakin bati buruzko eritzi kontrajarriak botatzen dituzte... Baina orain zuek, irakurle guztiek ere, zuen keja, iradikizun, protesta, animo, irain, piropo edo dena-delakoak Jone eta Jojori helarazi diezazkiezue.

E-mail bat bidali ondorengo helbide elektronikora, bertan nahi duzuen hori garbi jarriaz:

jojone@euskal-herria.com

KONTZIENTZI ERAGOZPENA

* Intsumisioa edo
objezioaren gainean zalantza
edo arazorik baduzu, Gazte
Bulegoan emango dizugu
paperak tramitatzeko behar
duzun informazioa.

LANA

* Asteazkenero jasotzen dugu
asteburuan egunkari
ezberdinetan azaltzen diren
lanpostu iragarkien bilduma
bat. Interesik edukiz gero,
pasa zaitez Gazte Informazio
bulegotik.

* Emakume euskaldun bat
behar da Arrasateko
arraindegi batean lana
egiteko. Beharrezkoa da
gidabaimena izatea.
Interesatuak 943 714 861 edo
946 820 373 zenbakietara
deitu dezakezue.

DIRULAGUNTZAK

* "Caja Madrid"en eskutik
atzerrian 2001-2002
ikasturtean postgradu

ikasketak egiteko
dirulaguntzak. Epea:
martxoak 7.

LEHIAKETAK

* AED Elkarteak
XIV.Arrasate Lehiaketa
antolatu du, ipuina, poesia,
bertso paperak, komikia,
euskalki grabazioa
eta irrati erreportajea
modalitateetan. Epea:
otsailak 5.

JAIOTZAK

Irati Etxebarrieta Altuna
(01/01/05)

Paula Rubio Oñate
(01/01/25)

Iker Lekuona Ruiz
(01/01/26)

Garazi Barandiaran
Palma
(01/01/29)



ESKORIATZA

| | |
|---------------------------|-------------------|
| Udaletxea | 943-714407 |
| Udal Bulegoak | 943-714532 |
| Udaltzaingoa | 943-714407 |
| Euskaltegia | 943-792168 |
| Kultur-Etxea | 943-714688 |
| Gizarte-Laguntzailea ... | 943-713136 |
| Kiroletxea..... | 943-715328 |
| Liburutegia..... | 943-713135 |
| Luis Eceiza..... | 943-714938 |
| Jose Arana-Almen Ikastola | 943-714486 |
| Almen | 943-714964 |
| Museo-Eskola | 943-715453 |
| Ze Barri? | 943-715434 |
| Talde Antimilitarista ... | 943-714537 |
| Irakasle Eskola | 943-714157 |
| Osakidetza | 943-714452 |
| Telesko | 943-714917 |
| Taxia | 943-714059 |

BESTELAKOAK

| | |
|---------------------------------|------------|
| Eskualde-Ospital (Arrasate) ... | 943-795300 |
| Gurutze-Gorria (Bergara) | 943-765576 |
| Ertzaintza (Arrasate) ... | 943-797199 |
| Suhiltzaileak (Oñati) ... | 943-792800 |
| Renfe (Zumarraga) | 943-721515 |
| Renfe (Gasteiz) | 945 232030 |
| Pesa (Arrasate) | 902 101210 |
| Larrialdiak (Arrasate)... | 943 771043 |
| SOS Deiak | 112 |



urtarrilerako zabalik



Zainduz
OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA
CENTRO DE SALUD Y FITNESS

**Zure bizi-kalitatea
dugu helburu!**

**Ihargi Plaza, 6
Aretxabaleta
Tel. 658 75 80 12**

Eskaintza:
Lehenengo
100 bazkideek
matrikularen
%50 bakarrik
ordainduko
dute.



G U N E A K :

HAUR HEZKUNTZA

- Olarte (2-6 urte)
- Santa Teresa (2-6 urte)
- S. Viator Txiki (2-6 urte)
- Umezaintza (0-6 urte)
- Jose Arana-Almen (0-6 urte)
- Sta. Rita (2-6 urte)

Matrikula zabalik Otsailaren 5etik -16ra

LEHEN HEZKUNTZA **DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA**

- | | |
|---|---|
| <p>■ (6-12 urte)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Almen • Gazteluondo • Sta. Teresa • S. Viator Txiki | <p>■ (12-16 urte)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ferixalekua • S. Viator • Almen |
|---|---|



BULEGO INFORMATIBOAK

| | | |
|---|---|--|
| <p>Arrasate Ferixalekua 15:00-19:00 943 77 20 25</p> | <p>Aretxabaleta Arizmendi 17:00-19:00 943 79 31 32</p> | <p>Eskoriatza Jose Arana-Almen 14:00-18:00 943 71 44 86</p> |
|---|---|--|

A
Arizmendi
ikastola

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 MONDRAGON-ARRASATE



IKUSPUNTU BERRI BAT.



NISSAN ALMERA *Tino* BERRIA. Mundu guztiak gauzak modu berean ikusten ez dituelako, Nissan Almera Tino berriak ikuspuntu guztiak hartzen ditu bere baitan. Umeak, adibidez, jolas-parke batean bezala, izango dira Tinoan: irakurtzeko eta marrazteko mahai tolesgarriak, era guztietako panpinak gordetzeko lurreko kutxa ateratzekoa, liburuentzako sareak, arkatzak eta baita 12v.-tako entxufea ere bideo-jokoekin jolas egin dezaten. Nissan Almera Tino berria. Txikientzat inoiz egin den gauzarik handiena.



5 URTEKO GARANTIA
www.nissan-almeratino.com

1.8-KO MOTOREA
COMFORT
2.592.000 pta.*

2.2 Di MOTOREA
COMFORT
2.792.000 pta.*

2.0 Cv MOTOREA
AMBIENCE
3.162.000 pta.*



GIDATU ETA GOZATU